Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2025eko urriaren 7a, asteartea — 191 — Martes, a 7 de octubre de 2025

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ZARAUZKO UDALA

*Zarauzko hondartzako erabilera eta jarduerak arautzeko ordenantza. Behin betiko onespena.*

2025eko ekainaren 24an egindako ohiko osoko bilkuran, Zarauzko Udalbatzarrak erabaki zuen behin-behineko onespena ematea Ordenantza honi:

— Zarauzko hondartzako erabilera eta jarduerak arautzeko Ordenantza.

Udalbatzarrak 2025eko irailaren 25eko bilkuran eman zion Ordenantzari behin betiko onespena.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak 70.2 artikuluan xedatutakoa betetzeko, behin betiko onartuta geratutako testua argitaratzen da.

Erabakiak amaiera ematen dio administrazio-bideari. Horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da: EAEko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita; egoki iritzitako beste edozein errekurtso jartzeari utzi gabe.

*Aplikatzekoa den legeria:* uztailaren 13ko 29/1998 Legea, Administrazioarekiko Auzitarako Eskumena arautzen duena (46. artikulua).

Zarautz, 2025eko urriaren 1a.—Alkatea. (6827)

ERANSKINA

*Zarauzko hondartzako erabilera eta jarduerak arautzeko Ordenantza.*

### HITZAURREA ETA ZIOEN AZALPENA

Zarauzko hondartza naturaren altxor bat da, herritar guztientzat zabalik dagoen leku dinamikoa. Bertan, beharrezkoa da ingurumenaren babesa eta jarduera sozio-ekonomikoak uztartzea, iraunkortasuneko irizpideetan oinarrituta.

Herriaren iparraldean dago, eta 2 km luze ditu. Bizkaiko golkorantz zabaltzen den hondartza ireki bat da. Horrek indar desberdineko itsas zurrunbiloak sortzen ditu, eta zurrunbiloek arriskuan jarri dezakete erabiltzaileen segurtasuna. Hondarra fina da, eta marearen mugimenduen eragina jasaten du. Ondorioz, hondar lehorraren eremua asko aldatzen da.

Ekialdeko dunak eta padurak balio natural handia dute eta babestuta daude. Eusko Jaurlaritzak zehaztuta dauzka gune horiek babesteko eta kudeatzeko irizpideak eta arauak. 1997rako «Biotopo Babestu» izendatu zuten, Eusko Jaurlaritzako Industria, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren otsailaren 25eko 40/1997 Dekretuaren bitartez. Gero, 2004. urtean, Europako Natur Guneen Sarean sartu zuten: Natura 2000. Gaur egun, gune babestuaren izendapena «Iñurritzako Paisaia Natural Babestua» da, eta horren arauak 215/2012 Dekretuan jasotzen dira (urriaren 16koa, eskualde biogeografiko atlantikoko hamalau ibai eta estuarioren Kontserbazio Bereziko Eremuak izendatzeko eta kontserbazio-neurriak onartzeko dena).

## AYUNTAMIENTO DE ZARAUTZ

*Ordenanza reguladora de usos y actividades en la playa de Zarautz. Aprobación definitiva.*

El Pleno del Ayuntamiento de Zarautz, en sesión celebrada el día 24 de junio de 2025, acordó inicialmente la siguiente Ordenanza:

— Ordenanza reguladora de usos y actividades en la playa de Zarautz.

Esta Ordenanza fue aprobada definitivamente por el Pleno del Ayuntamiento en sesión celebrada el día 25 de septiembre de 2025.

En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 70-2 de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local, se publica el texto que ha quedado aprobado definitivamente.

Contra el acuerdo, que pone fin a la vía administrativa, se podrá interponer recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de la publicación del presente anuncio, sin perjuicio de que pueda ejercitar cualquier otro recurso que estime procedente.

*Legislación aplicable:* artículo 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-administrativa.

Zarautz, a 1 de octubre de2025.—El alcalde. (6827)

ANEXO

*Ordenanza reguladora de usos y actividades en la playa de Zarautz.*

### PREÁMBULO Y EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La playa de Zarautz es un tesoro natural, un lugar dinámico, abierto a toda la ciudadanía. En ella se debe conjugar la protección del medio ambiente con las actividades socio-económicas, basándose en criterios de sostenibilidad.

Se encuentra al norte de la ciudad y tiene una longitud de 2 km. Se trata de una playa abierta hacia el golfo de Bizkaia y que genera corrientes marinas de distinta fuerza, incidiendo en la seguridad de los usuarios. El arenal es de arena fina y se ve afectado por movimientos mareales. En consecuencia, la zona de arena seca es muy variable.

Las dunas y marismas que se encuentran en el extremo oriental son de gran valor natural y están protegidas. El Gobierno Vasco tiene definidos los criterios y normas de protección y gestión de estos espacios. Ya en 1997 fue declarado «Biotopo Protegido» mediante Decreto 40/1997, de 25 de febrero, del Departamento de Industria, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco. Posteriormente, el 2004, se incorporó a la Red Europea de Espacios Naturales (Natura 2000). En la actualidad, la denominación de zona protegida es «Paisaje Natural Protegido de Iñurritza» y su regulación se recoge en el Decreto 215/2012, de 16 de octubre, por el que se designan Zonas Especiales de Conservación y se adoptan medidas de conservación en los catorce ríos y estuarios de la Región Biogeográfica Atlántica.

ZIRRIBORROA - BORRADOR

EK\CV GAO-I-2025-06827

Zarautz 2030 Plan Estrategikoak ere jasotzen ditu hondartzari buruzko aipamenak. Batetik, etorkizuneko gizarte berdinzale, solidario eta enpatikoaren lan-lerroan, ekintza hau aurreikusi da: «Hondartza Zarauzko nortasunaren agertokia izatea eta gizartearen balioak lantzeko eremu izatea»; bestetik, Zarautz herri orekatua eta jasangarriaren lan-lerroan, beste hau: «Hondartza modu jasangarrian kudeatzeko baliabideak ezartzea».

Bestalde, Udalak konpromiso hauek hartu ditu, indarrean dagoen hondartzako ingurumen kudeaketa sistemaren baitan:

«Ingurumena babesteko, Udalak bere kudeaketa etengabe hobetzeko lan egingo du, legezko betebeharrak eta testuingurua kontuan edukita.

Konpromiso hauek hartu ditu:

— Hondartzako balio naturalak babestea.

— Hondartza kalitatezko zerbitzuez hornitzea, beti ere baliabideak modu eraginkorrean erabilita.

— Hondartzaren erabilera eta gozamenaren ondorioz gauzatzen diren aktibitateek sortzen duten inpaktua ezagutu, kontrolatu eta posible den neurrian, murrizteko bitarteko eta baliabideak jartzea.

— Klima aldaketaren eraginez gerta litezkeen inpaktuak ezagutu, jarraipena egin eta beharrezko neurriak hartzea.

Testuinguru horretan justifikatzen da hondartzako erabilera eta jarduerak arautzea.

Kostaldeei buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legearen arabera, itsas-lehorreko jabari publikoaren ondasun dira, besteak beste, bai hondartzak bai harea, legarra, harri koskorrak eta halako material solteak metatzen diren guneak –malkarrak, bermak eta dunak barne–, landaredunak edo gabeak, itsasoak, haizeak edo beste arrazoi batzuk garraiatutako hondarrez elikatzen direnak.

Lege horren 115. artikuluaren d) atalak dio udalerrien eskumena dela hondartzak eta bainatzeko leku publikoak garbitasun-, higiene- eta osasungarritasun-baldintza egokietan mantentzea, eta Estatuko Administrazioak salbamenduari eta giza bizitzen segurtasunari buruz emandako arauak eta jarraibideak betetzen direla zaintzea.

Gainera, artikulu horren c) atalak gehitzen du udalerrien eskumena dela hondartzan ezarriko diren denboraldiko zerbitzuak ustiatzea.

Hortaz, kontuan hartuta itsas-lehorreko jabaria Zarauzko udal-mugapearen parte dela, guztiz ezinbestekoa da hondartzako erabiltzaileek arau minimo batzuk betetzea, bainularien eta oro har herritar guztien onerako izango baitira.

Ondorioz, hondartzako erabiltzaileek une oro bete beharko dute ordenantza honetan adierazitakoa eta Udalak aurrerantzean guztion onerako gai hauen inguruan ematen dituen agindu guztiak: giza bizitzaren salbamendu eta segurtasuna; aldi baterako instalazioak; eta denboraldiko zerbitzuen emakida eta baimenei eragiten dieten beste arau espezifiko batzuk.

Erabiltzaileek honako hauek ezarritako araudia ere errespetatu beharko dute: Itsasertzei buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legea, horren erregelamendua (urriaren 10eko 876/2014ko Errege-dekretuaren bidez onartutakoa) eta haren garapen-arauak, hierarkian ordenantza honen goragoko maila dutelako.

Bestalde, ekialdeko gune babestuan, hain zuzen ere, Iñurritzako Natura Paisaia Babestuan, eremuaren izendapenarekin ezarritako arauak aplikatuko dira.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan xedatutakoaren arabera, erregulazio honek honako printzipio hauek betetzen ditu: premia eta efikazia, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia.

El Plan Estratégico Zarautz 2030 también recoge las referencias a la playa. Por un lado, en la línea de trabajo de la sociedad igualitaria, solidaria y empática del futuro, está prevista la acción «Que la playa sea el escenario de la identidad de Zarautz y un espacio para trabajar los valores de la sociedad» y, por otro, en la línea de trabajo Zarautz un municipio equilibrado y sostenible, el Ayuntamiento ha recogido la acción «Establecer recursos para gestionar la playa de forma sostenible».

Por su parte, el Ayuntamiento ha adquirido los siguientes compromisos, en el contexto del sistema de gestión ambiental de la playa, actualmente en vigor:

«Para la protección del medio ambiente, el Ayuntamiento trabajará en la mejora continua de su gestión, teniendo en cuenta las obligaciones legales y el contexto.

Se compromete a:

— Proteger los valores naturales de la playa.

— Dotar a la playa de servicios de calidad con un uso eficiente de los recursos.

— A conocer, controlar y en la medida de lo posible reducir el impacto producido por las actividades consecuencia del uso y disfrute de la playa.

— Conocer los posibles impactos derivados del cambio climático, realizar su seguimiento y adoptar las medidas necesarias.

Es en este contexto donde se justifica la regulación de los usos y actividades en la playa.

Según la Ley 22/1988, de 28 de julio, de Costas, el dominio público marítimo-terrestre lo constituyen, entre otros, las playas o zonas de depósito de materiales sueltos, tales como arenas, gravas y guijarros, incluyendo escarpes, bermas y dunas, tengan o no vegetación, que se alimenten de la arena transportada por la acción del mar, del viento marino o por otras causas.

Asimismo, el apartado d) del artículo 115 de esa Ley establece que es competencia municipal mantener las playas y lugares públicos de baño en las debidas condiciones de limpieza, higiene y salubridad, así como vigilar la observancia de las normas e instrucciones dictadas por la Administración del Estado sobre salvamento y seguridad de las vidas humanas.

Además, el apartado c) de ese mismo artículo, establece que es competencia de los municipios la explotación de los servicios de temporada que se implanten en la playa.

Partiendo de la premisa de que el dominio marítimo-terrestre forma parte del término municipal de Zarautz, se considera de todo punto imprescindible el respeto de unas normas mínimas de comportamiento por parte de los usuarios de la playa, que redunden en beneficio de los bañistas y del colectivo en general.

En consecuencia, los usuarios de la playa deberán respetar en todo momento las indicaciones de la presente Ordenanza, así como todas aquellas disposiciones que el Ayuntamiento, por el bien general dicte en lo sucesivo con respecto al salvamento y seguridad de las vidas humanas, las instalaciones temporales y otras normas específicas que afecten a las concesiones y autorizaciones de temporada de distintos servicios.

Igualmente, los usuarios deberán respetar el régimen establecido por la Ley 22/1988, de 28 de julio, de Costas y su Reglamento aprobado por Real Decreto 876/2014, de 10 de octubre, así como sus normas de desarrollo, por ser de rango jerárquico superior a la presente ordenanza.

Por otra parte, en la zona protegida Este, concretamente en el Paisaje Natural Protegido de Iñurritza, serán de aplicación las normas establecidas en la declaración de zona.

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 129 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la presente regulación cumple con los principios de necesidad, eficacia, proporcionalidad, seguridad jurídica, transparencia y eficiencia.

ZIRRIBORROA - BORRADOR

EK\CV GAO-I-2025-06827

Ildo horretan, garbi dago premia- eta efikazia-printzipioak betetzen direla interes orokor bat dagoelako. Interes horretan oinarritzen dira Udalak, bere eskumenak baliatuz, jarritako neurriak.

Araua proportzionatua da, aurrez aipatutako helburuak lortzeko funtsezko erregulazioa jasotzen baitu.

Segurtasun juridikoaren printzipioari ere egokitzen zaio, gainerako ordenamendu juridikoarekiko koherentea baita.

Gardentasun printzipioari dagokionez, kontsulta publikoaren eta informazio publikoaren mende jarriko da araua.

Azkenik, efizientziari dagokionez, ahalegina egin da arauak herritarrei ahalik argien azaltzeko eta aurreikusitako neurriak eraginkorrak izateko.

*1. artikulua. Xedea.*

Udal ordenantza honen helburua da hondartzako erabilerak eta jarduerak arautzea.

*2. artikulua. Aplikazio-eremua.*

Ordenantza eremu honetan aplikatuko da:

Hondartza. Mugak: hegoaldean, itsasertzeko pasealekuko pareta eta golf-zelaiaren muga; mendebaldean, N-634 errepide-ertza; ekialdean, Talaimendiko magala.

Moila: Zarauzko ekialdeko mugan dagoen portu txikia.

*3. artikulua. Antolaketa, zaintza eta osasun-laguntza.*

Hondartzako zaintza eta laguntza zerbitzuak urte bakoitzeko udaldian emango dira; oro har, ekainaren 1etik irailaren 30era arteko egun guztietan.

Hala eta guztiz ere, Udalak udaldi bakoitzaren datak zehaztuko ditu, egoki iruditzen bazaio.

Epealdi horretatik kanpo ez da zaintza eta osasun-laguntza zerbitzurik egongo eta hondartzako erabiltzaileek beren erantzukizunpean jardungo dute.

Bainu-denboraldiaren hasiera eta bukaera egunak garaiz jakinaraziko dira.

1. Zarauzko hondartzako zaintza eta laguntza zerbitzuek ordutegi jakin bat beteko dute (aldez aurretik iragarriko da).

2. Ordutegi horretatik kanpo bainatzen diren pertsonek beren erantzukizunpean egingo dute.

3. Itsasoaren egoera eta Osasun Sailak zehaztutako osasun-baldintzak kontuan izanda, hondartzako zaintza eta laguntza zerbitzuek adieraziko dute bainua baimenduta dagoen ala ez eta zein baldintzatan.

4. Jasotako informazioa baloratu ostean, Udalak hondartza eta bainu-guneak zabalik edukiko ditu, edo, hala iruditzen bazaio, itxi egingo ditu.

Informazio hori ematerakoan kontuan izango dira Udalaren hizkuntza-irizpideak. Oro har piktogramak erabiliko dira euskarazko testuez lagunduta. Euskara eta beste hizkuntza batzuk erabiltzen direnean beti euskara lehenetsiko da.

Osasunari eta segurtasunari buruzko ahozko mezuak bi hizkuntzetan edo gehiagotan zabalduko dira, beti euskara lehenetsita.

*4. artikulua. Bainua.*

Itsasoaren egoera eta uraren kalitatea kontuan hartuta, Udalak bere erabakiak hartuko ditu, eta, hondartzako zaintza eta laguntza zerbitzuen bitartez, itsas-bainuei buruzko informazio emango da, honako sailkapen honi jarraituta:

En este sentido, se destaca el cumplimiento de los principios de necesidad y eficacia debido al interés general en el que se basan las medidas establecidas en el ejercicio de las competencias propias de este Ayuntamiento.

La norma es proporcionada al contener la regulación esencial para lograr los objetivos mencionados anteriormente.

También se ajusta al principio de seguridad jurídica al ser coherente con el resto del ordenamiento jurídico.

En relación con el principio de transparencia, la norma se someterá a los procedimientos de consulta pública e información pública.

Por último, en términos de eficiencia, se ha buscado que la norma sea clara para facilitar la compresión de la ciudadanía, para que las medidas propuestas sean eficaces.

*Artículo 1. Objeto.*

Esta ordenanza municipal tiene por objeto regular los usos y actividades en la playa.

*Artículo 2. Ámbito de aplicación.*

La presente Ordenanza será de aplicación en el siguiente ámbito:

La playa, que limita al sur con la pared del paseo marítimo y el límite del campo de golf; al oeste con el borde de la carretera N-634; al este con la ladera de Talaimendi.

Molla: pequeño puerto situado en el límite oriental de Zarautz.

*Artículo 3. Organización, vigilancia y asistencia sanitaria.*

Los servicios de vigilancia y asistencia se prestarán durante la temporada estival de cada año, que con carácter general abarca todos los días comprendidos entre el 1 de junio y el 30 de septiembre.

No obstante lo anterior, el Ayuntamiento determinará, si lo estima oportuno, las fechas oficiales de cada temporada estival.

Fuera de este periodo no habrá servicios de vigilancia y asistencia sanitaria y los usuarios de la playa actuarán bajo su responsabilidad.

El inicio y fin de la temporada de baños se anunciará oportunamente.

1. Los servicios de vigilancia y asistencia en la playa de Zarautz cumplirán un horario determinado oportunamente anunciado.

2. Fuera de dicho horario las personas que deseen bañarse lo harán bajo su exclusiva responsabilidad.

3. Teniendo en cuenta el estado del mar y las condiciones sanitarias del agua, determinadas por el Departamento de Sanidad, los servicios de vigilancia y asistencia de la playa indicarán si el baño está autorizado o no y en qué condiciones.

4. El Ayuntamiento, valorada la información transmitida, mantendrá abierta la playa, así como las zonas de baño, o cerrará las mismas si así lo estima oportuno.

A la hora de facilitar esta información se tendrán en cuenta los criterios lingüísticos del Ayuntamiento. En general se utilizarán pictogramas acompañados de textos en euskera. Cuando se utilicen el euskera y otros idiomas, se priorizará siempre el uso del euskera.

Los mensajes orales relativos a la salud y la seguridad se realizarán en dos o más idiomas, siempre con preferencia por el euskera.

*Artículo 4. Baño.*

Teniendo en cuenta el estado del mar y la calidad del agua, el Ayuntamiento adoptará las decisiones oportunas y, a través de los servicios de vigilancia y asistencia en la playa, se indicará la idoneidad de los baños de mar, siguiendo la siguiente clasificación:

ZIRRIBORROA - BORRADOR
EK\CV GAO-I-2025-06827

1. Koloretako banderak. Hona hemen horien esanahia:

— Bandera gorria: Bainua debekatuta.

— Bandera horia: Arretaz bainatu.

— Bandera berdea: Bainu librea.

— Bandera gorri/urdina: Ur-kirolak praktikatzeko gunea.

— Bandera beltza: Bainua debekatuta (kutsaduragatik).

— Bandera zuria, dagokion marrazkiarekin (marmokak, mikroalgak edo beste izaki bizidun batzuk): Arretaz bainatu edo bainua debekatuta.

2. Kartelak, ohar hauekin:

Bainua - «Librea».

Bainua - «Arretaz».

Bainua - «Debekatuta».

Bainulariek une oro errespetu beharko dituzte bai aurreko seinaleak, bai zaintza eta laguntza zerbitzuek segurtasunagatik ematen dituzten jarraibideak, bai organo eskudunek aurretik emanda dituzten xedapenak eta etorkizunean emango dituztenak.

*5. artikulua. Kirolak.*

5.1. Lurreko eta aireko kirolak.

Hondartzan kirol jakin batzuk egin ahal izango dira, baldin eta jarduera horrek beste pertsona batzuei arriskurik edo arazorik eragiten ez badie, beste jarduera batzuk oztopatzen ez baditu, bainurako mugatutako guneetara iristea eragozten ez badu, eta dagoen espazio libreak horretarako aukera ematen badu.

Debekatuta dago honako kirol hauek praktikatzea:

— Sokak, ainguraketak edo beste edozein motatako loturak behar dituzten kirolak.

— Trakzio mekanikoa edo animaliena behar duten kirolak.

— Zaldi-kirolak, edozein modalitatetan.

— Ibilgailu motordunak behar dituzten kirolak (autoak, motorrak, quadak, etab.).

— Golfa edo antzekoak.

— Jaurtiketa-jarduerak (barra, xabalina, diskoa, etab.).

— Itsasgoran debekatuta dago kirola egitea (futbola, pilota, pala, etab.).

— Haizeak mugiarazteko sokak eta ainguraketak edo amarradurak behar dituzten kirolak eta jarduerak, hala nola parapenteak, paraxutak, kometak, etab.

— Motordun parapenteekin hegan egitea.

5.2. Ur-kirolak.

Ur-kirolak praktikatzeko mugak.

Bandera gorri-urdinez mugatutako guneetan ur-kirolak praktikatu ahal izango dira, adibidez: surfa, bodyboarda, paddel surfa, piraguismoa...

Balizatutako guneetan debekatuta dago kirol- eta jolas-nabigazioa, bai eta edozein motatako ontzi edo flotagailu beladun edo motordun, salbu hondartzako zaintza, salbamendu eta laguntza zerbitzuekin zerikusia dutenak.

Itsasoan trakzio mekaniko edo eolikoko elementuekin eta edonolako ontziekin egiten diren kirol-modalitateak (motoa, eskia, bela, arrauna, etab.), marea-lerrotik kontatzen hasita, 200 metrotik aurrera praktikatu ahal izango dira, salbu hondartzako zaintza, salbamendu eta laguntza zerbitzuekin zerikusia dutenak.

Itsasoan praktikatu baina hondarretatik itsasoratzen eta lehorreratzen diren itsas-modalitateak (windsurfa, eski-surfa...)

1. Banderas de colores con los siguientes significados:

— Bandera roja: Baño prohibido.

— Bandera amarilla: Baño con precaución.

— Bandera verde: Baño libre.

— Bandera roja/azul: Zona para la práctica de deportes acuáticos.

— Bandera negra: Baño prohibido (por contaminación).

— Bandera blanca con el símbolo correspondiente (medusas, microalgas u otros seres vivos): Baño con precaución o baño prohibido.

2. Carteles con las siguientes indicaciones:

Baño - «Libre».

Baño - «Con precaución».

Baño - «No apto».

Los bañistas quedan obligados a respetar en todo momento las anteriores indicaciones, así como las orientaciones que por seguridad puedan realizar los servicios de vigilancia y asistencia y cuantas disposiciones existentes o que puedan dictarse en lo sucesivo por los organismos competentes.

*Artículo 5. Deportes.*

5.1. Deportes en tierra y aire.

Se podrán practicar determinados deportes en la playa siempre que la actividad realizada no ocasione riesgo o molestias para otras personas, no obstaculice el desarrollo de otras actividades y no se dificulte el acceso a las zonas acotadas para el baño y el espacio libre disponible lo permita.

No está permitida la práctica de los siguientes deportes:

— Deportes que para su desarrollo precisen de cuerdas, anclajes o cualquier otro tipo de amarre.

— Deportes con tracción mecánica o animal.

— Deportes ecuestres, en cualquiera de sus modalidades.

— Deportes que precisen de vehículos a motor (coches, motos, quad, etc.).

— Golf o similares.

— Actividades de lanzamiento (barra, jabalina, disco, etc.).

— Con marea alta queda prohibida la práctica de deportes (fútbol, pelota, pala, etc.).

— La práctica de deportes y actividades que precisan de cuerdas y anclajes o amarres para ser arrastrados por el viento, tales como parapentes, paracaídas, cometas, etc.

— El vuelo de parapentes a motor.

5.2. Deportes acuáticos.

Limitaciones para la práctica de los deportes acuáticos.

En las zonas acotadas con banderas rojas y azules se podrán practicar deportes acuáticos como surf, bodyboard, paddel surf, piragüismo...

En todas las zonas balizadas está prohibida la navegación deportiva y de recreo, y la utilización de cualquier tipo de embarcación o medio flotante movido a vela o motor, excepto los relacionados con los servicios de vigilancia salvamento y asistencia en la playa.

Las modalidades que se practican en el mar con elementos de tracción mecánica o eólica, así como las embarcaciones, en sus diferentes versiones (moto, esquí, vela, remo, etc.) se podrán realizar a partir de los 200 metros de la línea de la marea, excepto los relacionados con los servicios de vigilancia salvamento y asistencia en la playa.

Las modalidades que se practican en el mar pero que tienen su zona de lanzamiento y varada en la arena (windsurf, esquí-

ZIRRIBORROA - BORRADOR

EK\CV GAO-I-2025-06827

hondartzaren ekialdeko muturrean egin ahal izango dira, zaintzapeko bainuaren ordutegitik kanpora, itsasertzeko pasealekuaren bukaeratik 200 metrotik aurrera eta marea-lerrotik 200 metrotara; baldin eta erabilera horiek bestelako jarduerak eragozten ez badituzte.

5.3. Kirol praktikarako ustiapen baimenak uda sasoian.

Zarauzko Udalak, administrazio eskudunaren aldez aurreko baimena lortu ondoren, baimenak eman ahalko ditu uda sasoikoak diren eta egitura desmuntagarriak dituzten zerbitzuak ustiatzeko, toki-araubideko legedian xedatutako zuzeneko edo zeharkako kudeaketa-moduetan, eta arau hauetan aurreikusitakoaren arabera: uztailaren 28ko 22/1988 Legea, Itsasertzei buruzkoa (51. artikulua eta hurrengoak) eta Kostaldeen Erregelamendu Orokorra onartzen duen urriaren 10eko 876/2014 Errege Dekretua (113. artikulua). Udalak ezarri ahalko ditu horretarako baldintza eta betebehar ekonomikoak.

Eskatzaileak ordainduko ditu baimendutako jardueraren ondorioz sortutako gastu guztiak: zuzeneko edo zeharkako zergak, tasak eta kargak eta administrazio eskudunari ordaindu beharreko kanona.

Bestalde, Zarauzko Udalak baimenak eman ahal izango ditu udako denboraldia baino txikiagoak diren aldietarako zerbitzuak ustiatzeko.

Sasoiko zerbitzuak ustiatzeko espazioak mugatu egingo dira, administrazio eskudunak emandako baimenen arabera.

Udalak hizkuntza-baldintza batzuk jarriko ditu jarduerak baimentzerakoan. Zerbitzuak nagusiki euskaraz emango dira, eta euskararen erabilera kontuan izango da zerbitzuari lotutako alderdi guztietan.

*6. artikulua. Arrantza.*

Hondartzako kirol-arrantza bainu-ordutegitik kanpora egin ahal izango da.

Lehorretik egiten den kirol-arrantza ezingo da egin bainatzen edo beste edozein ur-kirol egiten ari diren gunetik 100 metro baino gutxiagora.

Ezingo da erabili administrazioak baimendu gabeko arrantza-aparailu edo -tresnarik. Hondartzan debekatuta dago tresa, pantxera, amu... eta halako arrantza-aparailuak jartzea.

Arrantza debekatuta dago erreserba biologokoetan, debekatutako guneetan edo babes berezikoetan, arau antolatzaileek hala diotenean.

Urpeko arrantza debekatuta dago bai moilan bai hondartza osoan.

*7. artikulua. Moila.*

Zarauzko moila txikiaren ezaugarriak direla medio, itsasgoran igerileku natural gisa erabiltzen da. Beraz, bainua baimenduta dago moilaren iparraldean, ontzirik atrakatzen ez den lekuan, baina bakarrik hondartzako zaintza eta laguntza zerbitzuek adierazitako gune eta ordutegian.

Segurtasunagatik, bainua debekatuta dago ontziak amarratzeko gunean.

*8. artikulua. Animaliak.*

Txakurrak egutegi eta ordutegi hauetan ibili daitezke hondartzan:

* Denboraldia amaitzen denetik Aste Santura arte, edozein ordutan.

* Aste Santutik udako denboraldia hasi arte:

— Aste egunetan, edozein ordutan.

— Asteburuetan, 21:00etatik 9:00etara.

surf...) se podrán realizar en el extremo este de la playa, una vez finalizado el horario de baño con servicio de vigilancia, a partir de los 200 metros de la finalización del Paseo Marítimo, y a 200 metros de la línea de la marea, sin interferir con sus usos los de otras actividades que se puedan realizar en la zona.

5.3. Autorizaciones de explotación para la práctica de deportes en periodo estival.

El Ayuntamiento de Zarautz, previa autorización de la administración competente, de conformidad con lo previsto en el art. 51 y siguientes de la Ley 22/1988, de 28 de julio, de Costas, y art. 113 del Real Decreto 876/2014 de 10 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento General de Costas, podrá conceder autorizaciones para la explotación de servicios estivales que dispongan de estructuras desmontables, por cualquiera de las formas de gestión directa o indirecta prevista en la legislación de Régimen Local. El Ayuntamiento podrá establecer las condiciones y obligaciones económicas para ello.

La persona solicitante abonará todos los gastos que se originen como consecuencia de la actividad autorizada, impuestos directos o indirectos, tasas y gravámenes, así como el canon a satisfacer a la administración competente.

Asimismo, el Ayuntamiento podrá conceder autorizaciones para la explotación de servicios temporales durante periodos inferiores a la temporada estival.

Los espacios para la explotación de los servicios de temporada serán delimitados conforme a las correspondientes autorizaciones otorgadas por la administración competente.

El Ayuntamiento establecerá las condiciones lingüísticas a la hora de autorizar las actividades. Los servicios se prestarán preferentemente en euskera, teniendo en cuenta su uso en todos los aspectos relacionados con el servicio.

*Artículo 6. Pesca.*

La pesca deportiva de superficie se podrá practicar fuera de las horas de baño.

La pesca deportiva de superficie que se practica desde tierra, no podrá efectuarse a menos de 100 metros de distancia de las zonas en las que estén practicando baño o cualquier otro deporte acuático.

No podrán ser utilizadas las artes o aparejos de pesca que no estén autorizados administrativamente, quedando prohibida la colocación en la playa de artes de pesca como tresas, pancheras, anzuelos, etc.

Se prohíbe la pesca en las zonas de reserva biológica, zonas vedadas o de especial protección cuando lo determinen sus normas ordenadoras.

Queda prohibida la práctica de caza submarina tanto en la zona del puerto, así como a lo largo de toda la playa.

*Artículo 7. Puerto.*

Dadas las características especiales del pequeño puerto de Zarautz, que funciona en pleamar como piscina natural, se permite el baño en la zona norte, donde no atracan las embarcaciones, sólo en el espacio y horario indicado por los servicios de vigilancia y asistencia en la playa.

Por seguridad se determina como no apta para el baño la zona destinada para el amarre de embarcaciones.

*Artículo 8. Presencia de animales.*

Los perros pueden andar por la playa en los siguientes calendarios y horarios:

* Desde el final de la temporada hasta Semana Santa, a cualquier hora.

* Desde Semana Santa hasta el inicio de la temporada:

— Los días de entre semana a cualquier hora.

— Los fines de semana de 21:00 a 9:00.

ZIRRIBORROA - BORRADOR


EK\CV GAO-I-2025-06827

* Udako denboraldian, 21:00etatik 09:00etara.

Dena dela, txakurra uhalarekin lotuta eraman behar da, eta hark utzitako gorozkiak jaso egin behar dira.

Hori, itsu-txakurrei buruzko azaroaren 21eko 17/1997 Legean jarritakoari utzi gabe.

*9. artikulua. Toldoak.*

Toldoak itsasertzeko pasealekuarekiko paraleloan jarriko dira, lerro bat eginez kostetako administrazio eskudunak baimendutako gunean. Zenbait espazio libre utziko dira pertsonak eta hondartzako zerbitzuetako ibilgailu zein makinak hondartzara jaisteko.

Toldoak jarrita egongo dira Udalak adierazitako epealdian, administrazio eskudunak jarritako baldintzak bete eta gero.

Emandako baimenean zehaztutako egunerako kenduko dira.

Toldoak zabalik edukiko dira goizeko 9:00etatik arratsaldeko 19:30era. Dena den, gerta daiteke mareare edo egoera klimatologikoaren ondorioz zerbitzua kaltetzea eta lehenago jaso behar izatea.

Adjudikaziodunak une oro errespetatuko ditu hondartzako garbiketa eta salbamendu zerbitzuen premiak, eta ahaleginak egingo ditu zeregin horietan ari diren pertsonen edo makinen lana ez eragozteko.

Era berean, debekatuta dago zerbitzuaren kontzesiodunaren jabetzako material alokatua bere erabilera-ordutegitik kanpora edo beste helburu batzuetarako erabiltzea.

Erabiltzaileak toldora sartu ahal izateko, 1,5 metroko distantzia gordeko da toldotik itsasorantz (toldoa zabalduta dagoela neurtuta).

Udalaren ustiapen-baimena duten kontzesiodunek bakarrik jarri ahal izango dituzte toldoak eta karpak hondartzan, ez beste pertsona edo erakunde batzuek.

Udalak hizkuntza-baldintza batzuk jarriko ditu zerbitzua baimentzerakoan. Zerbitzua nagusiki euskaraz emango da, eta euskararen erabilera kontuan izango da zerbitzuari lotutako alderdi guztietan.

Hondartza osoan debekatuta dago kanpin-dendak edo antzekoak jartzea, baita kanpamentuak edo kanpaldiak egitea ere.

*10. artikulua. Garbiketa eta ingurumenaren zaintza.*

Hondartza eta moila garbiketa, higiene eta osasun egoera onean edukiko dira.

Garbiketa-lanak egiteko makina eta erreminta egokiak erabiliko dira, zaborra gaika biltzeko eta hondar gehiegi ez jasotzeko.

Udako garbiketa-ordutegia aldez aurretik jarriko da. Toldoek okupatutako gunean ahaleginak egingo dira garbiketa goizeko 11:00etarako bukatzeko.

Oro har, garbiketarekin eta ingurumenarekin lotutako arau hauek beteko dira:

Zaborrak hondartzako eta itsasertzeko pasealekuko edukiontzietan botako dira, behar bezala sailkatuta: ontzi arinak, papera eta kartoia, beira, organikoa eta errefusa.

Debekatuta dago:

— Fruitu lehorren azalak eta zigarrokinak hondartzan botatzea.

— Gaikako zabor-bilketako edukiontzietan eta paperontzietan horiei ez dagozkien hondakinak botatzea.

— Hondakin solidoak, obra-hondakinak, araztu gabeko hondakin-urak hondarretara edo itsasora bota edo isurtzea.

* Temporada de verano, de 21:00 a 09:00.

En todo caso, es imprescindible llevar al perro sujeto a la correa correspondiente y recoger las heces dejadas del perro.

Ello, sin perjuicio de lo establecido en la Ley 17/1997, de 21 de noviembre, de perros guía.

*Artículo 9. Toldos.*

Los toldos se situarán en paralelo al Paseo Marítimo, trazando una línea, en la zona autorizada por la administración competente de costas, dejando libres los espacios necesarios para el acceso de personas, vehículos y maquinaria necesaria para los diversos servicios de playa.

Los toldos quedarán instalados entre las fechas que señale el Ayuntamiento, una vez cumplidas las condiciones impuestas por la administración competente.

Se retirarán para la fecha que se indique en la autorización concedida.

El horario de permanencia del toldo abierto será desde las 9:00 horas de la mañana hasta las 19:30 horas, salvo que por la influencia de la marea o situación climatológica se vea perjudicado el servicio y deban recogerse los mismos.

